



ARRAZTALO ELKARTEA

2018ko memoria

2019ko urtarila

AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
2	2018 URTEKO EKINTZEN AZALPENA	4
2.1	LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN	4
2.1.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.1.2	2018RAKO LAN ILDOAK	4
2.1.3	2018KO IBILBIDEA	5
2.2	ESKUALDEKO OSASUN MENTALEKO MAHAIA	6
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.2.2	2018RAKO HELBURUAK	6
2.2.3	2018KO IBILBIDEA	6
2.3	BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA	6
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.3.2	2018RAKO LAN ILDOAK	7
2.3.3	2018KO IBILBIDEA	7
2.4	IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK	9
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	9
2.4.2	2018RAKO LAN ILDOAK	9
2.4.3	2018KO IBILBIDEA	9
2.5	MATERIAL DIDAKTIKOA ETA TAILER IREKIAK	9
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	9
2.5.2	2018RAKO LAN ILDOAK	10
2.5.3	2018KO IBILBIDEA	10
2.6	ALDURAREKIN ELKARLANA	10
2.6.1	HELBURU OROKORRAK	10
2.6.2	2018RAKO LAN ILDOAK	10

2.6.3	2018KO IBILBIDEA	10
2.7	ENPLEGU ZENTRO BEREZIA	11
2.7.1	HELBURU OROKORRAK	11
2.7.2	2018RAKO LAN ILDOAK	11
2.7.3	2018KO IBILBIDEA	11
2.8	GAIXOTASUN PSIKIKOA DUTEN PERTSONEN ARRETARI BURUZKO AZTERKETA	13
2.8.1	HELBURU OROKORRAK	13
2.8.2	2018RAKO LAN ILDOAK	13
2.8.3	2018KO IBILBIDEA	13
3	<u>DIRU-LAGUNTZAK</u>	14
4	<u>DIRU-KONTUAK</u>	16

1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2018an egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta horien emaitzak zehazten dira. Gainera, dirukontuen azalpen zehatza ematen da.

2 2018 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2.1.2 2018rako lan ildoak

Honako lan ildoak ditugu 2018rako:

- Langileen bilakaeraren jarraipena egingo duen egitasmoa egonkortzea. Beharrezkoa ikusten dugu Arraztalotik kanpo dagoen norbaitek, eta lan integrazioaren inguruan esperientzia duen norbaitek, gainbegiraketa egitea. Horretarako, Oarsoaldeako teknikariek plangintza egin beharko dugu. Senideen parte hartzea ere interesgarria litzateke.
- Langileei beraien gaitasunak garatzen lagunduko dien dinamika diseinatzea. EHUrekin elkarlana bultzatu Arraztaloren Hezkuntza Proiektua diseinatu eta metodologia bat zehazteko. Langileen artean gaixotasun psikikoak utzi dituen ondorioak gainditzeko tresnak garatzea da helburua. Komunikazioan, enpatian eta norberaren kontzientzian dituzten hutsuneak betetzeko laguntza antolatu nahi da.
- Enpresa arruntetara hurbilketa. Enpresetan gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera azaltzea beharrezkoa dela uste dugu. Horretarako kanpaina bat egin beharko litzateke, baina hau, aurrerago azalduko den Oarsoaldeako Osasun Mentaleko mahaiaren helburuetako bat izan daiteke.

Helburu hauez gain, Arraztalo Elkartearen helburu nagusia, lan integrazioa hobetzeko programa egonkorra sortzea da. Programa hori pertsona batzuentzat aldi baterako

irtenbidea izango da, enpresa arruntetara pasa aurretik. Beste batzuentzat berriz, beraien gaixotasuna kontuan hartuz, behin betiko lantokia izan daiteke. Dena den, gaur egun, Arraztalo Elkartean ez dugu baliabide nahikorik lan integrazioko ibilbide osoa gauzatzeko. Hori lortzeko ezinbesteko tresna dugu Enplegu Zentro Berezia, eta egitasmo honek ekarriko du, lan integrazioko ibilbide osoa martxan jartzea.

2.1.3 2018ko ibilbidea

2018an Arraztalok lantalde egonkorra izan du, bost pertonez osatua. Urteko azken lau hilabetetan seigarren pertsona bat kontratatu da Foru Aldunditik jasotako diru laguntza bati esker. Pertsona horrek errefortzu lanak egingo ditu. Horrela lantaldea baratza ezberdinetan banatu daiteke eta antolaketa eraginkorragoa da, batez ere udaberriko landaketei begira.

Langileen bilakaeraren jarraipena egiteko, Oarsoaldea Garapen Agentziako teknikari batek aldizkako bisitak egiten ditu. Bisita horietan, lantalde osoarekin lanaren martxa aztertzen du. Egitasmo horren inguruan ez da lanketa gehiago egin oraingoz.

Bestalde, azkeneko urtetan langileei laguntza psikologikoa edo beraien gaitasunak garatzeko laguntza ematea beharrezkoa dela ikusi da. Helburua, baratzetan bertan behaketa egin eta bakoitzaren gaitasunak garatu eta lan dinamika hobetzeko laguntza ematea litzateke. Saiakera ugari egin dira “terapia” edo dinamika berri baten metodologia zehaztu nahian. Horretarako sektoreko profesionalengana jo dugu, baina ez dugu Arraztaloren beharretara egokitutako aukerarik aurkitu. Ez dugu ohiko terapia bilatzen. Baratzetan bertan, behaketa eginez, ohitura berriak sortuko dituen metodologia baizik. Metodologia hori diseinatzeko laguntza eske EHUko Gizarte Hezkuntzako sailera jo genuen 2017an. Bertako arduradunarekin bilera batean gure problematika aurkeztu genuen eta azterketa bat martxan jarri dute elkarlanerako formulak bilatzeko. 2018-2019 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak graduatu berrien kontrataziorako ateratzen dituen beketan eskaera sartu dugu, Gizarte Hezkuntzako graduatu berri bat gurekin lanean egon dadin hiru hilabetez. Pertsona honen lanaren helburua Arraztaloren hezkuntza proiektua idaztea izango litzateke.

Azkenik, 2018rako helburuetan, enpresa arruntetara hurbildu behar genuela zehaztu zen. Horretarako Oarsoaldearekin elkarlana planteatu zen, plangintza bat egiteko. Honen inguruan ez da ezer landu.

2.2 Eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia

2.2.1 Helburu orokorrak

- Buru-osasunaren inguruan lanean ari garen eragile guztien bilgune izango den mahai edo kontseilua sortzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan dauden hutsuneak identifikatu eta ekintzen plangintza egitea.

2.2.2 2018rako helburuak

- Eskualdeko Osasun Mentaleko mahaiaren proposamen zehatza idaztea.
- Proposamena partekatzea eragile guztiekin.
- Mahaia sortzea.

2.2.3 2018ko ibilbidea

2016 eta 2017an egindako tailer ezberdinetan, eragileak elkar ezagutzeko eta elkarlana bultzatzeko tresna eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia izan daitekeela proposatu zen. Mahai edo kontseilu honen helburua, gaixotasuna dutenen arretan parte hartzen dugun eragileen elkarlana bultzatzea litzateke. Bertan, besteak beste, erakundeak, senideak, gaixotasuna dutenak eta elkarteak egongo ginateke. Eskualdean dagoeneko badagoen Euskara batzordearen gisara funtzionatuko luke, gaixotasun psikikoaren inguruko sentsibilizazio kanpainak eta egitasmoak bultzatuz. Arraztalo eta Aldura Elkarteak egiten ari garen azterketa soziologikoa ere, batzorde horren aztergai izan daiteke.

Urte bukaeran Gaixotasun Psikikoak dituzten pertsonentzat Oarsoaldean dagoen arreta sistemari buruzko azterketaren aurkezpena egin genuen abenduaren 11ean. Aurkezpen horretara Osasun Mentaleko mahaien inguruan esperientzia duen Salut Mental Catalunya federazioko partaideak ekarri genituen.

2.3 Baratzak eta kontsumo taldea

2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konpromezua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2.3.2 2018rako lan ildoak

- Produkzio ekologikoa hobetzen jarraitzea. Ekologikoak dituen desabantailak gainditzea izango da orain helburu nagusia. Hazi eta landareen garestitzeari aurre egiteko, gure hazi propioak lantzen jarraituko dugu. Makutsoko lursailaren bilakaera prozesua ere bukatu beharko dugu.
- Kontsumo taldera jende berria erakartzeko neurriak aztertu. Bajen arrazoiak aztertu eta horien inguruan hobetzeko zer egin dezakegun zehaztu eta gauzatu. Horretarako, epe laburrean, baja eman dutenei eta taldean daudenei inkestak pasako zaizkie.
- Merkaturatze bide berriak egonkortzea. Laboreren hornitzaile izaten jarraitzea helburu bat izango da. Hautzaro Ikastolako jantokiarekin elkarlanean ere produkzioaren plangintza egin dezakegu, beraien beharretara egokitzeko. Honek ezinbestean elkarlana eskatuko du.
- Baratzen egoera hobetzeko inbertsioak egiten jarraitzea. Batzuk diru-laguntzen bidez egin beharko dira, beste batzuk, auzolanaren bidez.

2.3.3 2018ko ibilbidea

2018an Arraztalok lau baratza (19000 m²) eta bi sagasti (12000 m²) kudeatzen jarraitu du. 2017an egindako inbertsioek emaitza onak eman dituzte:

- 380 m²-ko negutegia jarri da.
- Negutegi txiki desmuntagarriak erabiltzen hasi gara, neguan barazkiak babesteko.



Inbertsio hauei esker, urte hasierako uzta, aurreko urtean baino hobea izan da, hotzaren eta izotzaren eragina nabarmen saihestu baita.

Kontsumo taldeari dagokionean, partaide kopurua mantendu da. Udazkenean igoera txiki bat izan du eta gaur egun 33 familia daude bertan. Horrez gain, taldekideei ere inkesta pasa zitzaion eta bertako emaitzen arabera neurri ezberdinak hartu dira, eskaintza eskaerari egokitzeko. Gainera, neurri berria jarriko da martxan taldekide berriak erakartzeko. Saskiak jasotzeko puntu berria jartzea izango da neurria. Izena ematerako garaian askok astelehenetan 18:00etan ezin dutela plazara etorri esaten digute. Horregatik Arraguako egoitzan saskiak jasotzeko puntua jarriko dugu eta bertan jaso ahal izango dira astelehen arratsaldean edo asteartean zehar.

Ziurtagiri Ekologikoa lortu genuen 2016an hiru baratzatarako eta hauek, etengabeko azterketa prozesuan daude, ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko. Makutsoko lursailaren kasuan, bilakaera prozesuan dago besteek hasieran egin zuten moduan.

2018an gure hazi propioak lortzeko egitasmoa martxan dago eta ahal den heinean, barazkiak gure hazietatik produzitzen ditugu. Honek abantaila nagusi bat du, haziak erosi behar ez izatea. Hala ere, ENEEK erakundeak gainbegiratzen duen ekoizpen ekologikoaren prozesuan, ez dago finkatuta hazi propioen jarraipena nola egin behar den. Hazien kontserbaziorako hutsean gordetzeko makina erosi dugu, Foru Aldundiaren diru laguntza bati esker.

2018rako helburuetako bat produktuak merkaturatzeko bide berrien azterketa egitea zen. Honen inguruan emaitza nagusi hauek lortu dira:

- Laboren gure produktuak saltzen jarraitzen dugu.
- Hautzaro Ikastolaren hornitzaile izaten jarraitzen dugu. Ikastolako jantokiko arduradunek prestutasuna erakutsi dute, eta Arraztalo kontuan hartzen dute. Behar duten barazki kopuru osoa hornitzeko ez gara gai izango, baina antolaketa egokiarekin produktu zehatzak saltzeko gai izango gara, hala nola, porruak edo kalabaza.
- Festak antolatzen dituzten eragile ezberdinen artean gure eskaintza gero eta ezagunagoa da. 2018an Xanistebanetan hornitzaile izan gara.
- Saskien eskaintza enpresatan egin. Enpresa bakoitzean 5 saski edo gehiagoko taldea bilduz gero, banaketa bertara egingo zaie adostutako egun eta orduan.

Salmenta bide berri hauekin, kontsumo taldean izan dugun jaitziera orekatu nahi da.

2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2.4.2 2018rako lan ildoak

- Bisitak gaixotasun psikikoa duten pertsonen errealitatea ezagutarazteko erabili behar ditugu. Egia da Arraztaloren marka nekazaritzarekin lotzen dutela askok, baina alderdi soziala ere azaldu behar dugu. Honekin lotuta, dagoeneko ditugun bisiten irakasleekin ikastetxeetan egiten duten lanketa aztertzea izango da helburua, Arraztaloren inguruan ematen dituzten azalpenak zein diren jakiteko.
- Baratzetako bisitak kontsumo taldearekin lotzeko, ikastetxeei bisiten ondoren oharra banatzeko aukera aztertuko dugu.

2.4.3 2018ko ibilbidea

Ikastetxeetatik bisitak jasotzen jarraitu dugu urtero moduan. Ez da aldaketarik izan eta ikasleek kontsumo taldea ezagutu dezaten ez dugu lanketa berezirik egin.

Ez dakigu zenbateraino ezagutzen duten ikasleek Arraztalok lan integrazioan egiten duen lana.

2.5 Material didaktikoa eta tailer irekiak

2.5.1 Helburu orokorrak

Material didaktikoaren egitasmoaren helburuak honakoak dira:

- Buruko Osasunari eta gaixotasun psikikoei buruzko oinarrizko ezagutzak ikastetxeetan zabaltzea.
- Irakasle eta gurasoei hurrekin buruko osasuna lantzeko euskarri bat ematea.
- Baratzetako bisitei jarraipen bat ematea ikaste programan buruko osasunari buruzko ezagutzak txertatuz.

Tailer irekienak berriz hauek:

- Herritarrak buruko osasunari eta gaixotasun psikikoei buruz sentsibilizatzea.
- Buruko osasunaren esparruan lan egiten duten profesionalen lana ezagutaraztea.

2.5.2 2018rako lan ildoak

- Tailer ireki bat gehiago antolatzea gutxienez.
- Unitate didaktikoa martxan jartzeko plangintza egitea ikastetxe batekin gutxienez.
- 2017an ez da ahaleginik egin unitate didaktiko berriak sortzeko, aurrekoa martxan jarri gabe baitago. 2018an ere ez da aurreikusten ezer berria sortzea.
- 2018rako sentsibilizazio ekintzak aztertzea eta diseinatzea.

2.5.3 2018ko ibilbidea

2018an tailer irekien inguruan ez da egitasmo berririk martxan jarri. Hala ere, Kuadrilategiko nerabeekin sentsibilizazio saio bat egiteko asmoa badago, gaztetxoan artean tailerren formatuak arrakasta izan dezakeela uste baitugu.

Unitate didaktikoaren inguruan, ikasturte hasiera honetan Elizalde Herri Ikastetxera hurbilduko gara, aurreko urtean emandako pausoak aurrera jarraitzen duten jakiteko. Unitate didaktikoa badute eta 2018-2019 ikasturtean ikaste programan sartzekotan geratu ziren. Horrez gain, elkarteko kide batek bere burua eskaini du unitate didaktiko berriak itzultzen jarraitzeko, beraz hurrengo ikasmaitarako materiala itzultzen hasiko gara.

2018rako sentsibilizazio ekintza nagusia Gaixotasun Psikikoak dituzten pertsonentzat Oarsoaldean dagoen arreta sistemari buruzko azterketaren aurkezpena izan da. Honen inguruko xehetasunak 2.8 atalean irakur daitezke.

2.6 Aldurarekin Elkarlana

2.6.1 Helburu orokorrak

- Gaixo psikikoen lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak sustatuz, baratzak sustatuz.

2.6.2 2018rako lan ildoak

- Arraztaloren esperientziatik Aldura Elkarteari bere ibilbidea egiten jarraitzea.
- Oarsoaldean egin daitezkeen ekintzetan bi elkarten arteko elkarlana bultzatzea.

2.6.3 2018ko ibilbidea

2018an Arraztalo eta Aldura elkarten elkarlan puntu nagusiak bi izan dira: Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arreta sistemari buruzko azterketa eta eskola baratzen proiektua.

Arreta sistemari buruzko azterketa bi elkarten artean egin da eta Aldura Oarsoaldeko beste herrietako pertsoneri egindako elkarrizketen antolaketaz arduratu da.

Horrez gain, Errenteriako Ahal Duguk emandako diru laguntza bati esker, eskola baratzen proiektuaren proposamena garatu ahal izan dute. Proposamen hori Oarsoaldea Garapen Agentziak eta Lur Paisajistak enpresak egin dute eta Arraztalotik baratzen kudeaketan dugun esperientziarekin lagundu diegu.

2.7 Enplegu Zentro Berezia

2.7.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

2.7.2 2018rako lan ildoak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.
- Enplegu Zentro Bereziaren legedia atera bitarte, inguruko erakundeekin proposamena lantzen joatea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa aztertzea, legelari baten laguntzaz.
- Oarsoaldea Garapen Agentziarekin plan ekonomiko-finantzieroa egitea.

2.7.3 2018ko ibilbidea

2018an Enplegu Zentro Berezia lortzeko bidean berriz ere Legebiltzarrera jo dugu. Martxoan, EHBilduren bidez, galdera idatzi bat egin zitzaion Enplegu Sailburuari gai honen inguruan. Ekainean erantzuna jaso zen, eta bertan galdera erantzuteko denbora gehiago behar duela eskatzen da. 2018ko urrian ez dugu erantzunik jaso.

Hau ikusirik, 2018ko maiatza eta uztaila bitartean mozioak aurkeztu ziren Oarsoaldeko lau udaletan. Mozio horietan eskaera zehatzak egin zitzaizkien udal korporazioei:

- Salatu dezatela Eusko Jaurlaritzaren utzikeria desgaitasuna duten pertsonen enplegu politiken inguruan. Estatuko beste edozein tokitan Enplegu Zentro Berezi bat sortu daitekeen bitartean, EAEn hori ezinezkoa da.
- Eskatu dezatela desgaitasuna duten pertsonentzako politika aktiboak arautuko dituen dekretua argitaratu, onartu eta neurriak martxan jartzea.
- Eskatu dezatela Enplegu Zentro Berezien erregistroa martxan jartzea.

- Gogorarazi diezaiotela Eusko Jaurlaritzari eta bertan ardurak dituzten alderdi politikoei, legedi hau onartzearen beharraz, aipatutako erakundeekin dituzten ohiko hartu emanetan.

Mozio bakoitzak ibilbide ezberdina izan du udal bakoitzean. Hauek izan dira emaitzak:

- Oiarzunen mozioa aho batez onartu zen, EAJk eskatutako aldaketa batzuk Arraztalo, Aldura eta EHBildurekin adostu ondoren. Lehenengo puntua, salatzea eskatzea gogorregia zela iritzita, Eusko Jaurlaritzari “eskatzea” jartzea adostu zen.
- Lezon Arraztalo eta Aldurak aurkeztutako mozioa ez zen bozketara iritsi. EAJk aurkeztutako beste mozio bat onartu zen, gurekin aurrez ezer adostu gabe.
- Pasaian, mozioa bere horretan bozkatu zen eta EHBilduk eta Pasaiak Ahal duk aldeko botoa eman zuten, EAJk eta PSEk aurkakoa.
- Erreterian, jatorrizko mozioa onartu zen EHBildu, PSE eta Erreteria Irabazizen aldeko botoekin eta EAJren abstentzioekin.

Ika mikez haratago, Arraztalo eta Alduratik errealitate bat plazaratu nahi dugu: ez Enplegu Zentro Berezien erregistroa ezta desgaitasuna duten pertsonentzako politika aktiboak arautuko dituen dekretua ez daude onartuta.

2018ko iraila eta urrian, orain arte egindako lanketa guztiaren materiala bildu da eta prentsa ohar bat argitaratu da gaia gizarteratu nahian.

Etorkizuneko Enplegu Zentro Bereziaren proposamena lantzeko bilera bat egin zen eskualdeko lau udaletako ordezkariekin. Printzipioz proposamena ongi ikusten dute baina dekretua ateratzen ez den bitartean, udalek ezin dute beraien parte hartzea ziurtatu.

2018ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak dekretuaren zirriborroa erakusketa publikoko fasean jarri du bere webgunearen bitartez. 20 eguneko epean ikusgai dago, edonork alegazioak egin ditzan. Txostena hau idazteko momentuan, Arraztalo eta Aldura zirriborroa aztertu eta etorkizuneko pausoak zein diren aztertzen ari dira.

2.8 Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretari buruzko azterketa

2.8.1 Helburu orokorrak

Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera zein den jakiteko azterketa soziologikoa egitea.

2.8.2 2018rako lan ildoak

- Proiektua bukatzeko diru-laguntzak lortzea.
- Azterketaren orain arteko emaitzen ebaluazioa egin eta hurrengo faseak prestatu.

2.8.3 2018ko ibilbidea

2018an azterketa bukatzea lortu da. Ekainean azterketa osoaren lehen zirriborroa jaso genuen eta ekarpenak egiteko fasea ireki zen. Arraztalok eta Aldurak bere ekarpenak egin ondoren, urria bukaeran edo azaroa hasieran behin betiko txostena edukitzea espero da.

Azterketak aztertu dituen gaiak, besteak beste, hauek dira:

- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera eta hauei ematen zaien arretaren azterketa kuantitatiboa. Osasun arretari, gizarte arretari eta lan integrazioari buruzko datuen azterketa.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretari buruzko azterketa kualitatiboa. Elkarrizketen bidez, osasun arretari, gizarte arretari, lan integrazioa, estigmari eta kolektibo berezien beharrei buruzko iritziak jaso dira.

Azterketaren ondorioak argitaratzeko, liburuxka bat atera da. Horrez gain, urte bukaeran aurkezpen publiko bat egin zen, goiz osoko jardunaldi bat antolatuz. Jardunaldi horretara azterketan parte hartu duten pertsona eta eragile guztiak gonbidatu ziren. Guztira, 50 bat pertsona bildu ziren Donibaneko Juanba Berasategi aretoan. Besteak beste, udaletako ordezkariak, Osakidetzako ordezkariak, Foru Aldundiko ordezkariak eta gaixotasuna dutenak eta senideak izan ziren bertan.

Horrez gain, Osasun Mentaleko Mahaien inguruko esperientzia kontatu zuten Salut Mental Catalunya federazioko kideek. Mahai horiek nola antolatzen diren, nork parte hartzen duten eta zer zeregin dituzten azaldu zuten.

Behin azterketa argitaratuta, Arraztalo eta Alduran ekintza plana zehaztu beharko dugu, bertan aipatzen diren beharrak nola asetu daitezkeen zehazteko. Ekintza plan horretan barne mailako egitasmoak egongo dira, baita erakundeekin gauzatu beharrekoak ere.

Azterketa honi esker Oarsoaldean Gaixotasun Psikikoa duten pertsonen arretari buruzko diagnostiko sakona dugu. Lanaren inguruko informazio guztia Arraztaloren webgunean dago zintzilikatua.

3 DIRU-LAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurten eskatu edo lortu dituen diru-laguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharra
Oiartzungo Udala	53000€	Lan integrazioa baratzetan	Bai	Hitzarmen bidezko diru laguntza.
Kutxa Fundazioa	4800€	Lan integrazio programan laguntzeko	Bai	18000€-ko diru-laguntza eskatu zen
Banco Santander	5000€	Negutegi berria erosteko	Erantzunaren zain	
Caixa	2000 €	Baratzetan integrazioan laguntzeko esku-hartze psikosozialerako programa gehigarria (Inserción Social deialdia)	Ez	Ez emateko arrazoia: aurrekontu falta
Caixa	1500 €	Baratzeko materiala erosteko	Bai	Zuzeneko laguntza Oiartzungo bulegotik kudeatua 4000€ eskatu ziren
Foru Aldundia	7150 €	Baratzetako integrazio	Bai	9900€ eskatu ziren.

		programari laguntzeko		
Foru Aldundia	5000 €	Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretari buruzko azterketa soziologikoa egiteko	Bai	5000€ eskatu ziren.
Foru Aldundia	3200 €	Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretari buruzko azterketaren aurkezpena antolatzeko	Bai	5000 € eskatu ziren
Eusko Jaurlaritza	1000 €	Zigilu Ekologikoaren programan parte hartzeagatik	Bai	
Eusko Jaurlaritza	1663€	Gaixotasun psikikoari buruzko azterketa soziologikoa egiteko	Bai	3000€ eskatu ziren
Foru Aldundia	3.319,20 € 871,49 €	Ekoizpen ekologikoan egoteagatik laguntza	Bai	

4 DIRU-KONTUAK

2018 SARRERAK	
Salmentak	
Kontsumo Taldea	18.655,52 €
Merkataritza	1.009,94 €
Diru laguntzak	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	19.540,69 €
Eusko Jaurlaritza	2.431,57 €
Bankuak	5.850,00 €
Maileguak	
Maileguak	0,00 €
Beste	1.220,72 €
Guztira	101.708,44 €

2018 GASTUAK	
Langileria	
Soldatak	54.323,55 €
Gizarte Segurantza	23.834,04 €
IRPF	4.157,72 €
Funtzionamendu gastuak	
Baratzak	6.518,13 €
Aseguruak	1.604,21 €
Ura	359,64 €
Argindarra	99,22 €
Asesoria	1.517,34 €
Hondakinak	162,42 €
Komisioak banketxeak	62,68 €
Beste	380,78 €
Inbertsioak	
Baratzetan inbertsioak	0,00 €
Amortizazioa	
Maileguen itzulketa	0,00 €
Sentsibilizazio ekintzak	
Sentsibilizazioa	1.781,50 €
Guztira	94.801,23 €

BALANTZEA	
2018-01-01	11.473,50 €
Balantzea	6.907,21 €
2018-12-31	18.380,71 €

